



AZPEITIA, EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2023-2026

2023ko urtarrila



Aurkibidea

1.	PLAN ESTRATEGIKOAREN OINARRIAK.....	2
1.	MISIOA.....	2
2.	BISIOA.....	2
3.	ANTOLAKETA ETA GOBERNANTZA	2
	Antolaketa eta eragin gunek.....	2
	Jarraipena.....	3
4.	BALIOAK.....	3
5.	ERRONKA NAGUSIAK.....	4
6.	LAN ILDOAK.....	4
2.	2023-2026 PLAN ESTRATEGIKOA.....	4
3.	Kudeaketa plana 2023.....	15

1. PLAN ESTRATEGIKOAREN OINARRIAK

1. MISIOA

Euskararen egoeraz kontziente den eta hizkuntzak herriko bizikidetzara eraikitzeke erabiltzen dituen herria izatea Azpeitia, betiere euskara ardatz (erdigune) duela. Euskaraz sortuko duen eta euskaraz bizi den herria izatea eta hiztun kontzienteak dituen.

2. BISIOA

Nondik begiratu behar diogu plan estrategikoari? Nondik begiratu behar diogu etorkizuneko Azpeitia euskaldunari?

Azpeitiako herritarren %83 euskalduna (euskaraz daki) da. Hori horrela, egoera soziolinguistiko osasuntsuan dagoen ikuspegitik baina aldi berean hainbat arrisku eta erronka garrantzitsu dituen begiradatik landu nahi dugu plan hau. Hau da, hizkuntzaren bitartez elkarbizitza eraikitzen jarraitzeko tresna moduan erabiltzen duen herria izan nahi du Azpeitiak. Horretarako ezinbestekoa da hizkuntzaren kontzientzia hartzea eta honek herria eta herritarren harreman sareak eraikitzeke duen gaitasunaz jabetzea.

3. ANTOLAKETA ETA GOBERNANTZA

Antolaketa eta eragin guneak

Azpeitiko euskararen plan estrategikoa herrira, herritarren harreman sareetara eta herri dinamikara egongo da zuzenduta.

Horregatik, Plan Estrategikoa egiteko prozesuan parte hartu duten eta interesa erakutsi duten herritarrekin abiatuko da, baina beti izango du kolektibo berrietara iristeko eta geroz eta anitzagoa izateko iparra.

Plan honen estrategia antolatzeko, desing thinking teoriak ekintza planen estrategia definitzeko oinarrian jartzen diren 5 elementu oinarritu da¹:

¹ Ideo, 2022. <https://www.ideo.com/blogs/inspiration/an-overview-of-our-best-design-thinking-strategy-frameworks>

				
Baliabideak	Pertsonak	Informazio fluxuak	Erabaki guñeak	Neurriak
Hainbat motako baliabideak eskatzen ditu ekintza plan honek. Batez ere ekonomia eta pertsona mailakoak.	Oinarrian daude Azpeitiko herritarrak eta talde moduan antolatuta daudenak.	Aliantza bidez garatuko den ekintza plana da eta funtsezkoa izango da guñeen eta interes taldeen arteko informazio eta komunikazio fluxuak ondo zehaztea.	Euskararen mahaia planaren jarraipenerako organoa izango da. Proposamen zein lanketa berriak egiteko guñe ere izan daiteke, baina Udaleko baliabideak eskatzen dituen ekintzak Udaleko Euskara Batzordean erabakiko dira.	Azpeitiko errealitate soziolinguistikora egokitutako plana da eta parte hartze prozesuan zehar detektatutako puntuetan eragiteko neurriak proposatzen ditu.

Jarraipena

Azpeitiko Euskararen Plan Estrategikoaren jarraipenerako guñea Euskararen Mahaia izango da. Askotariko eragilez osatutako organo berriarena izango da planaren gidaritza, nahiz eta planaren onarpena Udaltzat egingo duen. Hala ere, orokorrean plan honetako ekintzak Euskara Batzordean erabakiko dira, beharrezkoa ikusten bada.

Are gehiago, Euskararen Mahaia "herri mailako erabakiak" hartzen lagunduko du, eta horretarako baliatuko da. Hau da, euskararen inguruan kontzientziatuta dauden herritar eta eragilez osatutako guñea izango da momentuz herriko hizkuntza politikarako hartu beharreko erabakiak adostu eta eztabaidatzeko guñea.

4. BALIOAK

- Saretzea
- Arloartekotasuna
- Elkar entzutea
- Aniztasuna
- Ezberdinen arteko adostasuna

- Eragileen eta herritarren parte hartzea

5. ERRONKA NAGUSIAK

- **Euskararen biziberritzea ikuspegi komunitariotik lantzen duen herria:** herriko hizkuntza politikaren gidaritzarako eta jarraipenerako gobernantza partekatuaren eredu antolaturiko gune parte hartzailea sortzea.
- **Hizkuntza portaera kontzienteak dituen herritar saretuak:** herritarrek euskararen, Azpeitiko eta Euskal Herriko errealitate soziolinguistikoaren eta hizkuntza ohituren kontzientzia hartzea.
- **Euskaraz bizi den herria:** euskara Azpeitiko bizikidetzarako muina izatea / bilakatzea. Euskaraz bizi den herri eleanitza izatea eta hori herritarren artean barneratzea lortzea.

6. LAN ILDOAK

Aurretik aipatutako erronketara gerturatzeko 5 lan ildo nagusi ditu plan estrategiko honek. Honakoak dira horiek eta modu honetan elkar gurutzatzen dira:

ERRONKAK	LAN ILDOAK
EUSKARAREN BIZIBERRITZEA IKUSPEGI KOMUNITARIOTIK LANTZEN DUEN HERRIA	• Gobernantza partekatuaren bidezko antolaketa • Bizikidetzaren eraikitzea euskara erdigunean jarrita eta bestelako hizkuntzak kontuan hartuta
HIZKUNTZA PORTAERA KONTZIENTEAK DITUEN HERRITAR SARETUAK	• Kontzientziazioa eta sentsibilizazioa landu
EUSKARAZ BIZI DEN HERRIA	• Euskararen erabilerari eustea eta gune gehiagotara areagotzea • Euskararen ezagutza areagotzea

2. 2023-2026 PLAN ESTRATEGIKOA

Hurrengo orrietan plan estrategikoaren baitan landuko diren ekintzak eta urtez urteko hedapenak daude:

emuni
Euskara eta
berrikuntza soziala



AZPEITIA PLAN ESTRATEGIKOA 2023-2026							
ERRONKA: EUSKARAREN BIZIBERRITZEA IKUSPEGI KOMUNITARIOTIK LANTZEN DUEN HERRIA							
XEDE TALDEA	EKINTZA	URTEA				Arduraduna	ALIATUA
		2023	2024	2025	2026		
1.LAN ILDOA	Gobernantza partekatuaren bidezko antolaketa						
Euskararen mahaia	Euskararen mahaia osatzea eta egonkortzea Azpeitiko hizkuntza politikaren jarraipenerako.					Udala Euskara Patronatua	Herriko eragileak eta norbanakoak
	Euskararen inguruko herri kontakizuna osatu Euskararen Mahaia bitartez edo hortik sortutako lantalde baten bitartez.					Euskara mahaia	Herriko eragileak eta norbanakoak
	Herri mailako diskurtsoa sozializatu eta zilegitasuna eman.					Euskara mahaia	Herriko eragileak eta norbanakoak
Udala	Ekintza planean aurreikusten diren udaleko sailen artean ekintzak gauzatzeko koordinazio guneak sortu eta egonkortzea					Udala Euskara patronatua	Gainerako udal sailak
Azpeitiar norbanako eta antolatuak	Euskararen inguruan herritarrek eta herriko eragileak harremanetan jartzea					Udala Euskara Patronatua	Euskararen mahaia
	Azpeitiko Euskararen Mahaia norbanakoek parte hartzeko prestatu eta behar bezalako komunikazioa eta lanketak egin.					Udala Euskara Patronatua	Herriko eragileak eta norbanakoak
Hezkuntza zentroak	Hezkuntza zentroek hizkuntzaren kudeaketaren inguruan hartzen dituzten erabakiak denen artean erabakitakoak izateko gune bat sortu eta behar dituen baliabideak jarri.					Hezkuntza zentroak Udala (hezkuntza, euskara)	Hezkuntza zentroyen inguruko pertsonak (irakasleak, gurasoak...)

2.LAN ILDOA	Bizikidetzaren eraikitzea, euskara erdigunean jarrita eta beste hizkuntzak kontuan hartuta						
Herrira iritsi berriak	Harrera protokoloa berrikusi hizkuntzen ekologiaren ikuspegitik (hemen tokiko hizkuntza propioa dagoela, arnagunea dela eta hori zer den eta horrek eskatzen dituen neurri ekologistak zeintzuk diren azaldu).					Udal euskara eta integrazio arduradunak zein teknikariak	
	Harreraren jarraipena egin (jarraipena egin, eta euskara ikasteko dauden aukeren berri eman).					Udal euskara eta integrazio arduradunak zein teknikariak	UEMA zein herriko eragile sozialak (Elkar-ekin)
	Hizkuntza harrera baliabideak eskaini: harrera eskuorriak, udal langileentzako harreraren inguruko informazio saioak, eragileentzako sentsibilizazio saioak, harrera saioetarako euskararen inguruko diskurtsoa, bideoak...					UEMA	Udal langileak Herriko eragile sozialak (Elkar-ekin)
Aniztasun Jaia	Udalak antolatzen duen aniztasun jaia berrikusi eta hizkuntza aniztasuna praktikara eraman					Udala	Kultur aniztasunaren arloko herri eragileak
	Ekitaldi publikoetan hizkuntza aniztasuneko jokabideak zeintzuk izan daitezkeen zehaztu.					Euskararen mahaia	Kultur aniztasunaren arloko herri eragileak (Elkar-ekin), UEMA
Eskoletako harrera saioak	Eskoletako harrera saioak egiten jarraitu					Udala Euskara Patronatua	Eskolak
EtorkiZUn	EtorkiZUn programarekin jarraitu					Udala Euskara	Eskolak

						Patronatua	
Ulerrizketak	Ulerrizketa programarekin jarraitu (xede taldeak ondo zehaztuta)					Udala Udal euskaltegia	Herriko eragileak: Elkar-ekin, Mintzapraktikak
Guraso atzerritarrak dituzten haur eta gazteak	Aztertu herrian eta herriko ekimenetan duten parte hartzea. Herriko diagnostikoa egin zein haur eta gazte dauden "periferian" eta zergatik gertatzen den hori					Euskararen mahaia	Eskolak Gaztelekua Ludoteka Herriko elkarteak, klubak eta akademiak
Kirol elkarteak	Kirol klubetako monitoreekin, zuzendaritzekin eta laguntzaileekin lanketa egin hizkuntza jokabideetan kirolak izan dezakeen eraginaz					Udala Euskara Patronatua	Euskararen mahaia UEMA Oinherri
	Udalak kirol klubekin lehen harremanak egiten hasi udaleko gai transbertsalen inguruan, euskara tarteko.					Udala: euskara eta kirola	Euskararen mahaia Oinherri UEMA
Kirolaz aparteko gazteen aisialdi antolatua	Aisialdiko eragileekin lanketa egin, hizkuntza jokabideen inguruan eta horiek aisialdian duten garrantziaz.					Udala UEMA	Euskararen mahaia

ERRONKA: HIZKUNTZA PORTAERA KONTZIENTEAK DITUEN HERRITAR SARETUAK

XEDE TALDEA	EKINTZA	URTEA				Arduraduna	ALIATUA
		2023	2024	2025	2026		
3.LAN ILDOA	Kontzientziazioa, sentsibilizazioa landu						
Hiztunen ahalduntzea: herritarrak	Azpeitiko hiztunen ahalduntze eskola sortzea. Hitzunek kontzientzia hartzeko beharrezkoak dituzten baliabideak eskaintzea formazioaren eta saretearen bitartez. - Hizkuntza kontzientziazioa lantzea - Garapen komunitarioaren ikuspegia - Jarrerak eta portaerak aztertu - Identitatea eta hizkuntza - Arnasguneen garrantzia eta funtzioak					Euskararen mahaia Udala	Herriko eragileak (askotarikoak)
Familiak	Herri hezitzaileen figura berreskuratu. Familiak eta ikastetxeekin batera herri hezitzaile figurak hizkuntzaren erabilera eta kontzientziazioan izan dezakeen eraginaz hausnartu eta ekintzak aurreikusi.					Euskararen mahaia Udala	Ikastetxeak, familiak, ...
Kirol elkarteak	Kirol taldeei behar duten formazioa eskaini: - Hizkuntza portaerak eta jarrerak aztertu - Eredugarritasuna, taldetasuna, aspektu ludikoa Etorri berriak taldean sartzeko eta elebidun hartzaile bihurtzeko kirol taldeak duen potentzialtasunaz jabeaz					Udala Euskara Patronatua	Euskararen mahaia UEMA Oinherri
Begirale, Hezitzaile, entrenatzaileak	Azpeitiko testuinguru soziolinguistikora egokitutako formazioa eskaini udalekuetako, aisialdiko eta eskola kiroleko begiraleei, hezitzaile zein kirol klubetako					Udala Euskara Patronatua	UEMA

Azpeitiko euskararen plan estrategikoa 2022-2026

	entrenatzaileei.						
Lan mundua	Lan munduan euskarak ekar lezakeen balio erantsiaren garrantzia sozializatu (Elegune - Euskara planak)					Udala Euskara Patronatua	Herriko eragile ekonomikoak
	Sare sozial korporatiboetan eta ingurune digitalean euskararen erabilerak duen garrantziaz sentsibilizatu Azpeitiko enpresak, komertzioak eta ostalaritza.					Udala Euskara patronatua	Herriko eragile ekonomikoak
	Turismoarekin zerikusia duten eragileekin harremanak izan, eta haien sentsibilizazioa landu, hizkuntzaren aldagaia ere kontuan izan dezaten.					UEMA	Euskara Mahaia
Euskaltegiko ikasleak	Euskaltegian behe mailako ikasleei soziolinguistikaren inguruko tailerra eman. "Zergatik egiten da euskaraz Azpeitian?". Gure hizkuntza eta errealitatea ezagutzarazten lagundu.					UEMA Udal euskaltegia	
Hezkuntza zentroak	Ikastetxei hizkuntza kudeaketaren inguruko aholkularitza eskaini eta irakasleak zein hezitzaileak trebatu soziolinguistikari eta erabilera estrategietan.					UEMA	Herriko eskolak
	HEDATU egitasmoa landu, ikasleen, irakasleen eta gurasoen kontzientzia eragiteko eta euskara hizkuntzen mapan kokatzeko.					UEMA	Herriko eskolak

ERRONKA: EUSKARAZ BIZI DEN HERRIA

XEDE TALDEA	EKINTZA	URTEA				Arduraduna	ALIATUA
		2023	2024	2025	2026		
4.LAN ILDOA	Euskararen erabilerari eustea eta gune batzuetan areagotzea						
Ekitaldi/jaietako musika	Espazio publikoan egiten diren ekitaldietan jartzen den musika edo erabilitako euskarri komunikatiboetan hizkuntzaren irizpideei jarraipena egitea: kirol ekitaldiak, herriko festetako barrakak...					Udala Euskara Patronatua	Festa batzordeak Norbanakoak
Haur eta nerabeak	Herriko erreferente gazteekin lanak egin. Herrian haur/nerabeengan eragiteko gaitasuna dutenak identifikatu eta beraiekin hizkuntzaren inguruko lanak propioa prestatu haurrengan eragiteko.					Euskara mahaia Udala Gaztelekua	Herriko gazteak
Hitanoa	Hitanoaren erabilera sozializatzeko kanpaina bat egitea, gune informalean honen erabilera igotzea helburu. Euskaraldiaren ildotik erabilera areagotzeko herri dinamika bat?					Euskararen mahaia	Euskaltegia Herriko eragileak
Lan mundua	Ostalaritza, merkataritza eta zerbitzu publikoetan euskarazko hedabideen erabilera sustatzeko kanpaina egin.					Euskararen mahaia Udala	UKT Euskarako hedabideak
	Ostalari, merkataritza eta enpresek sare sozialetan zein ingurune digitalean euskara erabiltzeko baliabideak eskaini					Udal euskaltegia Euskara Patronatua	Bertan merkataritza elkarteak eta gainontzeko denda eta enpresak
	Udalak ostalariekin herriko tabernetan bete beharreko hizkuntza irizpideak eta konpromisoak zehaztea beraiekin. Udalaren establezimenduak horren eredu izatea.					Udala Euskara Patronatua	Herriko tabernariak AZTE Alde Zaharreko Tabernarien

							Elkartea
	Laboral Kutxaren, Kutxabanken eta Bankoaren bulegoetan behaketak egin, zerbitzua euskaraz ematen dela bermatzeko.					UEMA	Entitateetako bezeroak
Familiak	Gurasoak kontzientziatzeko ekintza/plan jakina prestatu. Gurasoak Azpeitiko errealitate soziolinguistikoak dituen erronkez jabetuarazi eta horiei heltzeko beraien rolak zenbateko garrantzia duen ezagutarazi.					Euskararen mahaia	UEMA Guraso elkarteak Eskolak Haurreskolak Ludoteka Gaztelekua Oinherri
Jatorri atzerritarreko herritarrak	Ostalaritzan/merkataritzan lan egiten duten herritarrekin zein bezeroekin euskara lehenesteko kanpaina bat egin. Lehen hitza beti euskaraz, aurreiritziak alde batera utzita.					Udala Euskara Patronatua	Euskaltegia Bertan Merkataritza elkarteak AZTE Herriko gainontzeko denda eta tabernak
Ikerketa soziolinguistikoa	Ikerketa bultzatu. Azpeitiarren hizkuntza soslaia eta ohiturak hobeto ezagutu, eragiteko eremuak identifikatu eta datuak behar bezala komunikatu.					Udala	Dagokion herri eragilea UKT
Ikus-entzunezkoak eta sare sozialak	Herriko nerabe/gazteek euskarazko edukiak sortzeko herri mailako baliabideak sortzea: herriko lehiaketa bat, ikus-entzunezko erakargarri euskaldunen bilketa, herriko gazteek sortutako baliabideen kanala....					Udala Gaztelekua Euskara Mahaia	Eskolak Dinamoa Sormen gunea UKT
	Euskarazko ikus-entzunezkoen baliabideen biltegia sortzea eta herritarrei horren berri ematea.					Euskararen mahaia	UEMA Hezkuntza zentroak Guraso elkarteak

	IKTak eta euskara batzen dituzten herri proiektuak diruz laguntzeko bideak aztertu.					Udala	
Udala	2023-2027 epealdirako udalean euskararen erabilera areagotzeko erabilera plana diseinatu.					Udala UEMA	
	Herriko plan eta proiektuen jarraipena egin eta Eragin Linguitikoaren Ebaluazioa behar detenetan aplikatu.					Udala	UEMA
5.LAN ILDOA	Euskararen ezagutza areagotzea						
Etorri berriak	Jatorri atzerritarreko herritarrentzat berariazko ikastaroak antolatu, beraien beharretara egokituak					Udala Udal euskaltegia	Herriko eragileak
	Ikastaroetan parte hartzeko beharrak zeintzuk diren identifikatzeko diagnostikoa egin: beraiei galdetu.					Udal euskaltegia	Herriko eragileak
	Ostalaritzan lan egiten duten atzerritarrei behar dituzten baliabideak eman euskara ikasteko lanean dauden bitartean. Aztertu bideragarria izan ote daitekeen lanorduetan ikasteko aukera eskaintzea (udalak osatutako murrizketak?)					Udala	UEMA AZTE eta gainontzeko tabernariak
Ostalariak eta merkatariak	Arlo honetan lan egiten dutenen artean euskara ikastaroak antolatu, beraien ordutegi eta beharrei egokituak					Udal euskaltegia	AZTE eta tabernariak Bertan merkatari elkarteak
	Denda eta tabernetako oinarritzko hiztegitxoa osatu, euskaraz ez dakiten langileek oinarri bat eskura izateko. Osatutakoan aurrez aurreko bisitak egin.					Udal euskaltegia Euskara Patronatua	Bertan merkatari elkarteak AZTE eta bestelako tabernariak
Hitanoaren ezagutza	Hitanoaren ezagutza zabaltzeko bideak landu. Izan saioak, lehiaketak, aplikazioak...					Euskararen mahaia	UKT Norbanakoak eta eragileak

Administrazioa	Osasun zentroko langileen hizkuntza gaitasunaren inguruko azterketa egin					UEMA	
Kultura eta sorkuntza	Kultur programazioak euskalduna izaten jarrai dezan bermatu, Kulturazekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenari esker.					Udala Kulturaz kooperatiba	
	Udaleko sormen bekak sustatu eta kudeatu.					Udala	Kulturaz kooperatiba Kultur mahaiko talde eragilea

3. Kudeaketa plana 2023

Aurreko orrietan jasota dauden ekintzetatik **19 ekintza** dira 2023ko gestio planerako aurreikusten direnak.

1. EUSKARAREN BIZIBERRITZEA IKUSPEGI KOMUNITARIOTIK LANTZEN DUEN HERRIA	Arduraduna	Data	Betetze maila
1.LAN ILDOA: Gobernantza partekatuaren bidezko antolaketa			
2. LAN ILDOA: Bizikidetza eraikitzea, euskara erdigunean jarrita eta beste hizkuntzak kontuan hartuta			
2. HIZKUNTZA PORTAERA KONTZIENTEAK DITUEN HERRITAR SARETUAK	Arduraduna	Data	Betetze maila
3.LAN ILDOA: Kontzientziazioa, sentsibilizazioa landu			

3. EUSKARAZ BIZI DEN HERRIA	Arduraduna	Data	Betetze maila
4.LAN ILDOA: Euskararen erabilerari eustea eta gune batzuetan areagotzea			
5.LAN ILDOA: Euskararen ezagutza areagotzea			

